


# ASTIGARRAGAKO HEZKIDETZA DIAGNOSTIKOA

## 2026ko martxoa

Astigarragako Udala

HIRUKI LARROXA

# 3. HEZKIDETZAREN ARGAZKIA

Sail honetan, Astigarragako Herri Eskola, Arantzazuko Ama BHI, Udal Talde eta eragileekin egindako saioetan behatutakoaren argazkia eta ateratako ondorioak aurkeztuko dira.

## 3.1 Herri identitatea eta herriko biztanleriaren profila

Diagnostikoa egitera Astigarragara joan garenean, guk ez genuen Astigarraga sakonki ezagutzen. Elkarrizketak, lan-saioak eta behaketak egiten joan garen heinean gero eta bisita gehiago egin ditugu Astigarragara eta apurka-apurka joan gara kanpoko begirada batetik herria nolakoa den ikusten, baina batez ere ikerketa honetan parte hartu duzuenok hitz egin diguzue zuen herriaz, nolakoa den eta zerk ezaugarritzen duen. Herri bakoitzak badu bere izaera propioa herri horrek dituen ezaugarriekin lotuta. Jaso dugun informazioan oinarrituta honela ezaugarrituko genuke Astigarraga nolakoa den:

Gehien komentatu diren ezaugarrien artean, herriko biztanleria azkeneko urteetan asko hazi dela dago. Biztanleriaren urteetan zeharreko datuak hartuta ikus daiteke 25 urteetan bikoiztu dela biztanleria eta goraldi nabarmena izan duela azken 15 urteetan.

| **Astigarragako biztanleria adin tarteka** | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | **1981** | **1986** | **1991** | **1996** | **2001** | **2006** | **2011** | **2016** | **2021** | **2025** |
| **Guztira** | 3075 | 3219 | 3216 | 3178 | 3751 | 4313 | 4928 | 6053 | 7056 | 7665 |
| **0 - 19** | 1092 | 1045 | 898 | 715 | 749 | 883 | 1097 | 1467 | 1745 | 1878 |
| **20 - 64** | 1710 | 1847 | 1970 | 2069 | 2597 | 2956 | 3240 | 3885 | 4464 | 4749 |
| **>= 65** | 273 | 327 | 348 | 394 | 405 | 474 | 591 | 701 | 847 | 1038 |

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak

Astigarragak duen biztanleria kantitate antzekoa edo altuagoa duten Gipuzkoako herrien artean proportzioan adin txikiko gehien dituen Gipuzkoako herri da Astigarraga, eta hau ere datu esanguratsua da. Egindako saio eta elkarrizketetan errepikatu da biztanleriaren hazkuntza honen protagonista den profila Donostia ingurukoak diren familia zisheterosexual, zuri eta maila sozioekonomiko ertain-altukoak direla, haurrak izatera joaten direnak Astigarragara.

Oro har, Astigarraga, herri euskalduna, zuria, maila ekonomiko ertain-altukoa eta haurrak dituzten familia zisheteronormatiboak erdigunean dituena da. Hori da gehien errepikatu duzuena zuen herriaren inguruan hitz egin duzuenean.

Astigarraga herri mailan parte hartzea kostatzen den herria dela ere esan diguzue; aktibismoari begira, ospakizunetan zein jaietan parte hartzeari lotuta ez dagoela indarrik, udaletik haratago antolatzen diren ekimenak kostatzen direla aurrera ateratzea eta jende gutxi dagoela horretan ari dena. Buruntzaldea mailan ikusita herritarren parte hartzeari dagokionez Astigarragan hutsunea dagoela esan diguzue.

Hau identitate falta batekin lotu eta Astigarragaren historiak horretan zerikusia duela azpimarratu duzue. Astigarraga, Hernani eta Donostiaren itzalean egon den herria izan dela aipatu duzue, eta urteetan Astigarragatik Hernanira joateko joera izan dela herrian geratu beharrean. Gainera, Astigarraga hasiera batean herria izan zen, gero Donostiako auzo bihurtu zen eta ondoren berriro herri, eta horrek identitatea markatu duela aipatu diguzue.

Duela urte batzuk herria handitzen hasi zen batez ere Donostiatik etorritako jendearekin eta askok ez zutela Astigarragan bizitza egiten diozue, lo egiteko herri bat zen, ez zituzten herriko zerbitzuak erabiltzen. Azken urteetan, herrira etorritakoek umeak izatearekin batera, hasi zarete hazkunde hori nabaritzen.

Azkenik, Astigarragan errotuta dauden familien eta herrira azken urteetan bizitzera etorri diren pertsona eta familia berrien arteko talka edo desberdintasuna

nabarmendu duzue batzuk. Beste batzuk, orain herrian jaio eta hazten ari diren haurrak Astigarragakoak direla aipatu diguzue eta hemen aukera ikusten duzue: herri identitatea elikatzeko aukera.

## 3.2 Ikastetxeen argazkia

### A) Astigarragako Herri Eskola

- **Ikasleak**

Astigarragako Herri Eskolako LH4 eta LH6 mailetako gela banatan 3 saio egin dira, horietako 2 Lahia 3.0 elkartearekin batera izanda.

Egindako behaketatik abiatuta, generoaren araberako gorputz-iruditegia eta rol-ereduak oso barneratuta daudela ikusi da. Egindako rolen jolas batean, mutilen irudikapena honako hau izan da: 'prakak jaitsita ipurdi erdiraino, hankak zabalik, gorputza atzerantz'; eta neskena: 'modeloak bezala ibiltzen, *divinas, ai el bolsito*, tripa bistan'. Amaren rolean, beroki eta motxilekin eskuetan, umeak zaintzen, arduratuta eta edaten agertu dira; eta aitaren rolean: sofan telebista ikusten, zerbezarekin eskuan, *galdetu amari* erantzuten, mobilean kirola ikusten. Honek erakusten du dagoeneko LH4en genero-rol tradizionalak gorputzean eta iruditerian barneratuta daudela, eta etxeko eredu maskulino eta femeninoaren banaketa oso argia dela ikasleen begietan.

LH6n ere joera bera agertu da baina konplexutasun handiagoarekin: mutilen artean kontaktu fisiko handia eta laztan ugari (*'bro!'*, elkarren gainean botata), eta nesken artean ukimen fisikoaren modu ezberdin bat agertu da (hatzamar puntekin ukitu, oihu agudoak, besarkadak).

Era berean, galdetzean *'uste dut neskak eta mutilak...',* erantzunak bi poloren artean kokatzen dira: gehiengoaren erantzuna *'ezberdinak direla'* izan da, eta gutxiengo txiki baten aldetik *'berdinak dira'*. Ñabardura interesgarriak agertzen dira: *'askotan banatzen garela', 'gehienak ez direla elkarrekin ibiltzen'...* Praktikan saioan bertan

ikusten da banaketa nola gauzatzen den: mutil eta neska taldeak berehala segregatu dira jarduera libreetan, neska eta mutilek banaketa eta bizipen desberdinak dituztela agerian utziz.

Bestalde, korporatibismo maskulinoa eta talde-leialtasun itsua dagoela behatu da. '*Un pibe nunca abandona a otro pibe*' esaldia atera da gela batean, *'beti defendatuko dut'* esan dute batzuk, beste batzuk *'pasatzen den arte'* komentatu duten bitartean. Honek zuzenean adierazten du maskulinitate hegemonikoari lotutako korporatibismo eta talde-leialtasun itsua 8-12 urteko haurretan dagoeneko finkatuta dagoela, baita indarkeria dagoenean ere, taldeak babesten duela kide erasotzailea. Ildo berdinetik jarraituz, korporatibismo maskulinoaren beste seinale argi bat da, gelan mutilek baztertzen duten mutil batekin neska bat sartzen denean, mutilak mutilaren defentsan agertzen direla, nahiz eta mutilak bakarrik daudenean berarekin sartzen diren.

Honek zuzenean eramaten gaitu indarkeria goiztiarrera eta komunetan gertatzen diren indarkeria eta kontrol egoeretara, izan ere, ikasleek betetako fitxetan hainbatek kontatu dute komunetan mutilek azpitik begiratzen dituztela. Egoera hauek bat datoz gurasoen saioan agertu diren beste narratiba batzuekin, argi utziz indarkeria sexualizatua LHko maila baxuetan dagoeneko presente dagoela.

Emozioekin jarraituz, emozioen kudeaketarako eredu mugatua dute. Negarrez daudenean zer egiten duten galdetuta, erantzunak oso adierazgarriak dira: *'bakarrik geratzen naiz nire gelan', 'aitak isiltzeko esaten dit, amarengana joaten naiz'.* Era berean, haserrearen emozioa lantzean, ikasle guztiek jotzea, bultzatzea eta oihuak lotu dituzte haserre adierazpenarekin, eta irakasleei dagokienez oihuak, tonoa igo eta *'zuzendaritzara bidali'* agertu da; ikusi daitekenez, haserrearen kudeaketa eta boterea zuzenean indarkeriarekin lotzen dute eta hemendik dator bi geletan ikasleen fitxetan errepikatzen diren hitzak: borrokak, bronkak, haserreak, *'lioak'*, oihukatzea eta kalera

botatzea. Ikasleek gatazken eta gelako bizikidetzaren inguruan kezka eta frustrazioa adierazten dute.

Orokorrean, genero-rol tradizionalak gorputzean, hizkuntzan eta harremanetan oso goiz errotzen direla ikusten da, baita eskolako egunerokotasunean etengabe berriz ekoizten direla ere; aldi berean, indarkeria sexualizatuaren, korporatibismo maskulinoaren eta emozioen kudeaketa mugatuaren seinaleak LH4n bertan agertzen direla, eta LH6rako askoz ere finkatuagoak daude.

- **Irakasleak**

Astigarragako Herri Eskolako klaustro osoarekin ordu bateko saio bat egin da, eta ikasketa burua eta bizikidetzako arduradunarekin bi orduko elkarrizketa erdigidatu bat.

Hezkidetzarekiko jarrera eta sentsibilitate orokorra positiboa dela ikusi da: berdintasunaren, LGTBI+ aniztasunaren eta tratu onen inguruko hiztegi egokia erabiltzen dute orokorrean, eta ez da ageri erresistentzia ideologikorik edo diskurtso esplizituki kontrakorik. Hala ere, behin eta berriz errepikatzen da sentipena hau: '*badakigu zertaz ari garen, baina ez dakigu nola egin', 'ez daukagu tresnarik´*. Horrek adierazten du ezagutza diskurtsiboa badagoela, baina ez dagoela ezagutza operatibo nahikorik, ezta planifikazio eta egituratze instituzionalik ere.

Irakasleen kontakizunetan hezkidetza askotan erantzun gisa agertzen da, ez prebentzio egituratu gisa: gatazka edo kasu zehatz baten aurrean jartzen da martxan, baina ez dago eguneroko sozializazio-prozesu gisa ulertuta ezta kurrikulumean zein tutoretza-planean txertatuta ere. Ikuspegi honek arriskua dakar indarkeria eta genero-desberdintasunak salbuespen gisa kokatzeko, eta ez egiturazko fenomeno bezala ulertzeko; horren ondorioz, indarkeria matxista sotila

(hizkera, espazioaren okupazioa, kontrol eta umiliazio dinamika txikiak) sarritan ez dira izendatzen indarkeria gisa.

Bestalde, irakasle askok sentitzen dute zaintza eta ongizate emozionalaren gainkarga beren bizkarretan erortzen dela, egiturarik gabe. Tutoretza *'psikologo lana bihurtu dela'* esaten dute, eta ikasleen sufrimendua ikusten duten arren, ez dutela behar adina tresna, prestakuntza edo baliabiderik horri modu egonkor eta profesionalizatuan heltzeko. Balio moduan zaintza defendatzen bada ere, praktikan pertsona jakinen gain uzten da (tutoreak, bizikidetza ardura dutenak), eta hori zaintza-krisiaren adierazle da eskolan.

Azkenik, irakasleek beraiek ere nabarmentzen dute denbora eta egitura faltak mugatzen duela hezkidetza modu sakon eta koherentean lantzeko: ez dago hezkidetza-plan propio eta zeharkakorik, ez ordutegi eta jarraipen-egiturarik, eta hezkidetzaren ardura eta ikasleekin egiten den lanketa tutore edo irakasle konkretuen eta gaiarekiko sentsibilitate edo ardura dutenen esku geratzen da, hezkuntza komunitate osoaren ardura partekatu gisa ulertu beharrean.

- **Gurasoak**

Diagnostiko honetan parte hartzeko gonbidapena egin zaie Astigarragako Herri Eskolako familia guztiei. Bi orduko saio bakarra egin da eta elkarrizketa intimo eta sakona izan da. Hurbildu diren pertsonak, guztira, 9 ama izan dira.

Hemendik hasita, aiten absentziaren datu sinple eta aldi berean esanguratsu honek berak erakusten du zaintza, hezkuntza eta parekidetasunaren ardura nagusiki emakumeen gainean dagoela oraindik ere eta errealitate hau egiturazko joera dela. Honen harira saioan nagusitu ziren sentipenak izan ziren kezka seme-alaben egoerengatik, bakardade-sentsazioa eta sarritan bizkar gainean daramaten gainkarga emozionala.

Diskurtso mailan, genero-desberdintasuna maiz azaltzen da biologiatik edo izaeratik abiatuta: neskak *'emozionalagoak', 'sentiberagoak'* edo *'sufrimendura joateko joera handiagoa'* duten subjektu gisa deskribatzen dira, eta mutilak *'basikoagoak', 'brutoagoak'* edo *'azkarrago haserretzen direnak'* bezala. Gutxiengo batek sozializazioaren eragina azpimarratzen badu ere, nagusitzen den irakurketa honek arriskua dakar genero-rolak naturalizatzeko eta mutilek indarkeria edo kontrol jarrerak izatea 'normaltzat' hartzeko.

Amen kontakizunetan agertzen dira indarkeria sexualizatu goiztiarreko egoera larriak, zeintzuk ikastetxearen eta beste heldu batzuen erantzuna *'ez da hainbesterako'* edo *'haurren gauzak dira'* diskurtsoaren eta protokoloak irekitzearen artean geratu diren. Ama batzuek adierazten dute eskolaren esku-hartzea ez dela nahikoa izan: protokoloak irekitzen direla baina ez dakitela zein jarraipen egiten den edo zer den egiten dena, eta sarri ardura beste instantzia batzuetara pasatzen dela praktikan ezer gutxi eginda.

Kontrolaren gaiak ere lekua hartu du: smart watch-ak, geolokalizazioa eta antzeko tresnak maitasun eta babesaren izenean erabiltzen dira askotan, eta guraso batzuek kezka adierazten dute maitasuna = kontrola ekuazioa seme-alabengan nola barneratzen ari den. Indarkeria matxistaren prebentzioaren ikuspegitik, hau funtsezkoa da, izan ere, kontrola normalizatzen den neurrian, zailagoa baita kontrol-indarkeriaren lehen seinaleak ikustea eta izendatzea.

Amek behin eta berriz azpimarratzen dute eskola eta familien arteko komunikazio kanal argien falta: askotan ez dakite geletan zer gertatzen den, ezta generoarekin lotutako egoerak nola kudeatzen diren ere, eta informazioa tutore bakoitzaren sentsibilitatearen eta borondatearen araberakoa dela sentitzen dute. Horren ondorioz, eskatzen dute balioak (errespetua, berdintasuna, tratu onak) sistematikoki lantzea eskolan, informazioa modu garden eta kolektiboan partekatzea (ez kasu

isolatuetan bakarrik) eta gurasoentzako aholkularitza eta formakuntza espazio egonkorrak sortzea.

Laburbilduz, elkarrizketa honen atzean irudi garbia dago: amek eskolaren aliatuak izan nahi dute; hezkidetzaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren ardura ez dadila eskolaren ardurapean bakarrik geratu, baina ezta haien gain erori ere modu isolatuan. Azken batean, hau da amen partetik ateratzen den mezu politena: prest daude parte hartzeko, baina egiturak, kanalak eta laguntza behar dituzte hori ez dadin zama pertsonal hutsa izan.

- **Jangela**

Astigarragako Herri Eskolako jangelako arduradunekin ordu bateko elkarrizketa bat egin da, orain arte egindako elkarrizketa eta saioetan, jangelaren momentua atera den gai errepikakorra izan delako.

Jangelako arduradunek esan digute azken urteotan jangela momentua zaintza, askatasuna eta gatazka gurutzatzen diren espazio nagusietako bat bihurtu dela: eskolan dauden bitartean haurrak aske dauden espazioa da jangela garaia, gelan kontrolatuago eta mugatuago egoten direlako, eta gelan ateratzen ez diren gatazkak jangela garaian ateratzen dira. Gainera, gero eta haur gehiago geratzen dira jangelan, eta hori familientzako laguntza garrantzitsua bada ere, espazioaren eta helduen kopuruaren mugak oso nabarmenak dira: leku murriztuan ume asko, zarata handia eta atsedenik ia ez duten begiraleak.

Begirale taldearen profila argia da: gehienak emakume gazteak, formakuntza pedagogiko espezifikorik gabe, eta prestigio eta jardute-gaitasun gutxiagoko posizio batean irakasleekin alderatuta. Haurrek oso ondo irakurtzen dute hierarkia hori eta, ondorioz, irakasleei erakusten dieten errespetua ez da maila berean agertzen jangeletako hezitzaileekin. Askotan tratu desegokia eta burlak jasaten dituzte ikasleen aldetik; adibide esanguratsuenetako bat da *‘jo nazazue’* jartzen duen papera

bizkarrean itsatsi diotela begirale bati. Begiraleek horrelako jarreren aurrean ondoriorik ezartzeko eskumenik ez duenez, ikasleak horretaz baliatzen dira.

Horren aurrean, eskola-komunitateak pausu bat eman du: arautegi berri bat onartu da, jangelako arduradunek, jangela batzordeak eta guraso elkarteko ordezkariek elkarrekin landua, arau-hausteen mailakatzea eta ondorio zehatzak jasotzen dituena. Dokumentu honek ez du soilik jokabidea 'zigortzeko' balio; haurrentzat eta familien aurrean marko argi bat jartzen du, eta begiraleentzat babes sinboliko bat ere bada: erabakiak ez dira pertsona baten nahi gisa bizi, baizik eta adostutako arau batzuen aplikazio gisa.

Hala ere, arautegiak ez du konpontzen oinarrizko tentsio bat: jangelan gertatzen dena espazio eta baliabide faltarekin dago lotuta. `Marko zehatz mugatu bat dago: ordutegia, espazioa ez dela nahikoa, ume kantitate handia eta begirale gutxiegi. Hor egiten dugu: superbibentzia´.

Jangelako arduradunek beraiek identifikatu dute indarkeria matxistaren prebentziorako lanaren beharra, eta ahaleginak egin dituzte horretarako. Begiraleekin batera indarkeria hori zein gatazkak gertatu ohi diren gune beltzak seinalatu dituzte: sarrera eta irteeretako ateak, karakol estiloko eskailerak eta komunak. Espazio horiek behatuta egoten dira orain denbora guztian, ikasleak eskola barruko espazioan ezin dute heldurik gabe ibili eta hizkera matxista edota iraingarriaren aurrean esku hartu dute. Hala ere, askotan sentitzen dute ez dutela nahiko formakuntzarik ezta egiturazko baliabiderik.

### B) Arantzazuko Ama Ikastetxea

- **Ikasleak**

Arantzazuko Ama Ikastetxeko DBH1, DBH2 eta DBH4. mailetan behaketak (Lahia 3.0 elkartearekin batera) eta bi orduko lan saioak egin dira. Ateratako ondorioak LHko mailetan ikusten diren antzeko ondorioak dira.

Lehenik eta behin, generoaren araberako espazio-banaketa, hizkera eta harreman ereduak oso errotuta daudela ikusi da nerabezaroaren lehen faseetatik bertatik. Pasiloetan, patioan eta saioan aurrera eramandako jolasetan, egindako behaketetan ia etengabe errepikatzen da irudi bera: mutilak espazioa hartzen, zarata eta mugimendu handiarekin, elkar ukituz eta elkarren gainera botaz; neskak, berriz, bazterretan edo izkinetan bilduta, zutik edo eserita, baxuago hitz egiten eta gorputz mugimendu kontrolatuagoarekin.

Honek erakusten du maskulinitate hegemonikoarekin lotutako gorputz-jarrera (indarra, ikusgarritasuna, espazioa okupatzea, sexualitatearen erakustaldi bortitzak) eta feminitatearekin lotutako rola (isiltasuna, atzera egitea, entzule posizioa) dagoeneko txertatuta daudela.

Bestalde, antzerkian eta egindako dinamiketan, genero rol-tradizionalak etxe barruetan gertatzen diren eszenetan berretsi dira, baita familia eredu hegemonikoa ere. Bi ama dauden familien inguruan galdetzean, argi gelditu da zein ikusezin geratzen diren bestelako familia-errealitateak haien iruditegian, izan ere, haien erantzuna isiltasuna eta *‘ez ditut inoiz ikusi bi ama hainbeste umerekin’* izan da.

Indarkeria eta kontrolaren dinamika batzuekin jarraituz, ikasleek identifikatzen dituzte hauetako batzuk, baina maiz ‘normaltzat’ jotzen dituzte. DBH2n, adibidez, egin den antzerki batean *‘tipo handiak txikiari’* jotzen dion egoera irudikatu dute, inguruan jendearekin borobilean txaloka eta animatzen; hori *‘mutilen artean gertatzen den gauza bat’* dela diote. Neskek ere euren artean oihuak eta irainak egiten dituzte

eta hauek *'maitasunaren adierazpen'* gisa definitzen dituzte, indarkeriaren eta maitasunaren arteko mugak lausotuz.

Patioan, berriz, neskek kontatu dute nola sentitzen diren futbol zelaiaren ertzean eseriak daudenean eta baloia behin eta berriz gainera doakienean eta mutilak euren gorputzen gaineko kontrolik gabe doazenean baloiaren bila. Askotan entzuten duten mezua handik altxatu eta beste toki batera mugitzeko da, genero eta botere dinamikak argi utziz.

DBH4n egoera hauek are esplizituago ikusi ditugu: ikasleek aitortzen dute *'patioan neskak eta mutilak aparte ibiltzen'* direla, *'bakarrik elkartzen garela klaserako'* eta ia ez dutela harremanik talde mistoetan. Paretaren kontra eserita dauden neskek baloia gainera jasotzen dutenean, *'ez badute nahita egiten ez da ezer gertatzen'* esaten dute, deserosotasuna minimizatuz; egoera aldatzeko proposamen bakarra *'neskak lekuz aldatzea'* izan da bai mutil zein nesken aldetik, ardura espazioa hartzen duen dinamikan jarri beharrean.

Sexualitateari eta hizkerari dagokionez, DBH1eko saioan agertutako komentario eta jokaerek erakusten dute iruditeri misoginoa barneratuta dutela mutilek: jolasetako izen bezala *'pajaman', 'paja paja paja', 'tu mama good'* jarri zizkieten beraien burueri, masturbazio-keinu kolektiboak edo *'dos pa una, uno por detrás y otro por delante'* moduko esaldiak entzun genituen, eta bortxaketen inguruko abestiak abesten dituzte. Nesken erantzuna, orokorrean, isiltasuna, deserosotasuna eta urruntzea izan dira.

Ikasleek genero-desberdintasunari buruz ematen dituzten azalpenetan ere bi plano ikusten dira: alde batetik, esaten dute neskak eta mutilak *'berdinak'* direla eta *'eskubide berdinak izan beharko lituzketela'* eta, bestetik, praktikaren deskripzioan naturalizatuta agertzen da bereizketa eta gorputzari eta izaerari lotutako diferentziak. Diskurtso hau bat dator diagnostikoan orokorrean jasotakoarekin:

genero-desberdintasuna nagusiki biologiatik edo izaeratik azaltzen da, eta sozializazioaren dimentsio politikoa bigarren planoan geratzen da.

Azkenik, ikasleen ahotsetan indarkeria eta tratu txarrak ez dira abstrakzio gisa agertzen baizik eta beren egunerokoan ematen diren egoera konkretu gisa eta, aldi berean, beldur edo ezintasun sentimendua adierazten dute esku hartzeko: *'borrokan sartzen bazara txarrago da', 'no es una pelea si uno no quiere'.*

Saioen amaieran, DBH2ko talde batek modu esplizituan adierazi du hezkidetzaren eta sexualitate heziketaren beharra eta gogoa: *'horrelako saioak behar ditugu askoz gehiago; balio digute bizitzarako matek baino gehiago'*, hezkuntza formalaren eta bizi-errealitatearen arteko arrakala seinalatuz.

- **Irakasleak**

Arantzaziko Ama BHIko irakasle batzuekin egin zen ordu bateko elkarrizketa; hezkidetza gaian interesa zuten irakasleekin, hain zuzen ere. 15 irakaslek hartu zuten parte saioan.

Bi plano nagusi ageri dira batera bertaratu diren irakasleengan: alde batetik, borondate eta sentsibilitatea hezkidetza eta tratu onak lantzeko; eta bestetik, egitura, denbora eta prestakuntza falta sakona. Irakasleek beraiek esaten dute institutuak ez duela hezkidetza planik, ez hezkidetza arduradunik, eta ofizialki ez dela ia ezer egiten arlo horretan; egiten den gutxi hori irakasle eta ikasle boluntario batzuen ekimenari esker gertatzen da, adibidez beraien borondatez sortu dute bi irakaslek ekimen bat DBH3 eta DBH4tik nahi duten ikasleekin batera Azaroak 25 antolatzeko. Hau da, hezkidetza ez da ikastetxean sistematizatuta eta zeharkako moduan lantzen den gaia.

Diskurtso mailan, irakasleek argi adierazten dute ahal dutena egiten dutela, baina sarri irakasle bakoitzaren eskuetan geratzen dela hezkidetza eta bizikidetza lantzea. Honen aurrean, batzuek ez dute baliabiderik lanketa hauetarako, eta beste askok esan dute ez dutela ezagutzarik gaur egungo haur eta nerabeek dakartzaten egoera

konplexuei aurre egiteko. Tutoretza *'psikologo lana'* bihurtu dela deskribatzen dute, eta kontentzio lana egiten dutela.

Bestalde, irakasleek azpimarratzen dute kulturarteko egoerek eta migrazio-prozesuek desberdintasunak, botere-harremanak eta diskurtso arrazistak eragiten dituela ikasle eta familien ahotsetan. Honi lotuta aipatu da klase, genero eta arrazializazio zapalkuntzak gurutzatzen direnean gorputzetan garrantzitsua dela ikastetxetik salbuespen bezala ez ikustea, baizik eta sistema mailako desberdintasun eta politika arrazisten ondorio gisa.

Laburbilduz, Arantzazuko Aman irakasle talde zati batek (saiora 15 etorri direlako) badu sentsibilitatea eta borondatea hezkidetza, aniztasuna eta tratu onak lantzeko, baina gaur egun lan hori gehienbat pertsona jakinen gain erortzen da plan, baliabide eta koordinazio-egitura sendorik gabe.

- **Gurasoak**

Herri eskolan bezala Arantzazuko Amako ikasleen gurasoekin saio bat proposatu genuen, baina guraso (ama) bakarrak eman zuen izena eta bertan behera geratu zen saioa.

Honek erakusten du haur eta nerabeak adinean gora doazen heinean, askotan gurasoen inplikazioa eskolako egunerokoan modu berean ez dela mantentzen, eta joera egon daitekeela parte-hartze zuzenak gutxitzera, nahiz eta inplikazioaren moduak ere aldatzen diren.

- **Jangela**

Jangelako koordinatzaile batekin eta begirale batekin egin dugu elkarrizketa bat.
Egun, eskola erdia baino gutxiago geratzen da jangelan, baina hala ere 100 bat ikasle dira, eta espazioaren muga fisikoak agerikoak dira txandaka antolatu behar dituzte

otorduak eta. LHko ikasleek lehenago jaten dute eta gero DBHkoekin tarteak partekatzen dituzte, eta horrek ere tentsio eta talkak sortzen ditu adin-taldeen artean.

Jangelan lanean ari direnak 3 begirale, sukalde inguruan 2 langile eta koordinatzailea dira, denak emakumeak. Figurak argi markatzen du zaintza lanen feminizazioa. Gainera, nerabeek badakite begiraleek ez dutela zigortzeko ahalmenik, eta maiz mugak bilatzen eta autoritatea probatzen aritzen dira. Begiraleek diote askotan baztertuak eta zerbitzari moduan tratatuak sentitzen direla *'tú que eres mujer limpia'* bezalako esaldiak entzunez. Genero-rol eta zaintza lan feminizatuen ideia oso barneratua dute.

Gatazkak gehienbat mutilen artean gertatzen direla diote, jotzeraino iritsi diren egoerak gutxitan izan direla, baina etengabe dagoela mugak probatzeko joera, eskubideei buruzko diskurtsoak dituzte eta betebeharrak ikusteko zailtasuna.

Komunak eta patioa dira 'gune beroak'. Jangelako arduradunek kontatzen dute mutilak taldean sartzen direla komunera, pixa kanpora egiten dutela eta papera zikin eta bustia botatzen dutela.

Gatazken kudeaketan, begiraleek bi maila bereizten dituzte: egoera 'errazetan' adostasuna bilatzen saiatzen dira, eta zailagoetan lasaitasuna lehenetsi eta koordinatzaileari deitzen diote; nerabeek badakite begiraleek ezin dituztela parteak jarri, eta askotan beraiek eskatzen diete *'jarri partea!'* presio egiteko, irakasleen esku baitago neurri formala. Honek erakusten du autoritatearen piramidea presente dagoela nerabeen iruditerian, begiraleen posizioa ahulagoa dela formalki eta sinbolikoki eta nerabeek hau erabiltzen dutela institutuko langileak gaizki tratatzeko.

Jangelako beharrak argi formulatu dituzte: begirale gehiago, begiraleek autoritate handiagoa izatea ondorioak jarri ahal izateko eta ez egoteko etengabe irakasleen eta koordinatzailearen atzean; eta etxetik datorren jarreran eragiteko lanketa, izan ere, beraien esanetan, nerabeek eskolan erakusten duten tratu eta genero-diskurtso asko

etxeko eta inguruko ereduetatik datoz. Jantokia, beraz, hezkidetzarako, indarkeria matxistaren prebentziorako eta zaintza-lanen birbanaketarako gako espazioa da, baldintza material eta sinboliko egokiak jarrita eragin eraikitzailea izango lukeena.

## 3.3 Udalaren argazkia

Udal taldearekin bi orduko bi saio egin dira. Hauetan, Astigarragako Udaletxeko hurrengo teknikari eta zinegotziak elkartu dira:

| | |
|---|---|
| Zinegotziak | - Berdintasuna eta Euskara |
| | - Kirola, Gazteria, Kultura, Jaiak eta Elkarbizitza |
| | - Gizarte Zerbitzuak eta Komunikazioa |
| Teknikariak | - Gizarte Langilea |
| | - Berdintasun, Elkarbizitza eta Parte Hartzea |
| | - Kultura eta Jaiak |
| | - Hezkuntza eta Euskara |
| | - Kirola eta Gazteria |

Astigarragako Udalean berdintasunaren eta hezkidetzaren inguruko lana azken urteotan zabaldu egin da, baina oraindik ere zatituta eta desorekatuta dago sailen eta pertsonen artean. Berdintasun plana 2024an berritu da, barne-berdintasun plana ere badago, eta indarkeriaren aurkako eta tratu onen inguruko protokolo ugari jarri dira martxan (erakunde arteko protokoloa, udal taldearen jokabide protokoloa, Lopibiren prozesuak, etab.), baina askotan “paper gaineko” egitura gisa bizi dira: zerbait gertatzen denean aktibatzen diren tresna juridiko eta administratibo moduan, ez eguneroko kultura-aldaketa sustatzeko marko gisa.

Saioetan aitortzen dute protokolo asko daudela, eta batzuetan zaila egiten zaiela norberaren papera eta ardura ere zein den kokatzea horietan. Zailtasunez hitz egitean, gehitu dute batez ere botere-harreman sotilak edo barne-gatazkak direnean kostatzen zaiela gehien identifikatzea.

Udal sail ezberdinetatik (berdintasuna, gazteria, kirola, kultura, ongizatea...) ekimen ugari aipatzen dira: puntu morea sagardo-denboraldian eta festetan, adingabeen babeserako formakuntzak, gurasoekin egindako hitzaldiak, emakumeen kirolaren sustapena, aniztasun mahaitik ateratako jardunaldiak, Emakumeon Etxearen inguruko ekintzak eta abar. Hala ere, diagnosian ageri denez, arriskua da jarduera horiek 'ekintza-zerrenda' moduan pilatzea, ikuspegi estrategiko bateraturik gabe: fitxak betetzen dira eta klausula formalak sartzen dira kontratu eta dirulaguntzetan, baina ez dago jarraipen eta ebaluazio sistematiko bat, ezta hezkidetza-irizpide argirik ere eragin hezitzailearen ikuspegitik.

Udaleko lehen saioan, feminismoa, intersekzionalitatea eta zisheteropatriarkatua bezalako kontzeptuen inguruko eztabaidak erakutsi du ezagutza-maila desorekatuak daudela udal langile eta zinegotzien artean: kide batzuek hizkera hori eroso erabiltzen dute, baina beste batzuek lehen aldiz entzuten dituzte termino horiek eta *'ez dakit zer egiten dudan hemen'* moduko sentsazioaren adierazpena entzun dugu. Ezagutza-maila desoreka horrek botere sinbolikoaren banaketa ere agerian uzten du: nork sentitzen duen bere burua seguru hitz egiteko eta nork ez, eta nola sortzen diren isiltasunak eta deslegitimazio txikiak.

Indarkeriaren inguruan, udal kideek badute ikuspegia zabaltzeko borondatea (botere-harreman toxikoak, begiradak, tonuak, barne-boterearen erabilera...), baina muga diskurtsibo nabarmenak ere badaude: eztabaida etengabea da intentzioaren eta ondorioaren artean, edo boterearen erabilera 'legitimoaren' eta indarkeriaren arteko mugan, eta horrek zaildu egiten du udal barruan gertatzen diren mikro-indarkeria eta desorekak izendatzea. Gainera, indarkeria matxista sarri kanpoko gertakariekin lotzen da (pintadak, bandak kentzea, Emakumeon Etxearen aurkako eraso sinbolikoak), eta barneko botere-harremanek eragiten duten min edo deserosotasunari buruz hitz egitea askoz ere zailagoa egiten zaie.

Gazteen eta helduen jarrerei dagokienez, udal ordezkariek kezka handiz deskribatzen dute nerabezaroaren errealitatea (*'larria'* dela diote), eta generoari lotutako irainak, *influencer* matxisten eragina eta LGTBI+ ikusgarritasun eza aipatzen dituzte. Aldi berean, onartzen dute heldu askok diskurtso *'politikoki zuzena'* dutela, baina barnean aurreiritzi eta erresistentzia asko mantentzen direla (*'yo respeto, pero a mí que no me venga de princesita'* jarri da adibide bezala, kritikatuz), eta horrek erakusten du hezkidetza-lana ez dela gazteengana bakarrik bideratu behar, baizik eta helduen harreman eta ereduetan ere sakondu behar dela.

Azkenik, parte-hartzea agertzen da erronka nagusietako bat bezala, gizonentzako tailer batean herri osoan inork ez izena ematea, hitzaldi eta formazioetara oso jende gutxi joatea, eta herritarrak "ikusle" posizioan geratzea udal ekimenen aurrean horren adibide izanik. Horrek erakusten du formatu klasikoek (tailerrak, hitzaldiak) mugak dituztela eta beharrezkoa dela hezkidetza eta berdintasuna zeharka lantzea kultura, kirola, aisialdia edo jaietako programazioaren bidez, herritik bertatik sortutako dinamika komunitarioak sustatuz, eta udalak horiek babestu eta errazteko rola hartuz.

## 3.4 Eragileen argazkia

### A) Ongizate Arduradunen Sarea (OAS)

Ongizate Arduradunen Sarearekin bi orduko bi saio egin dira talde hau osatzen duten gehiengo arduradunekin; hurrengoak elkartu ziren:

- Mundarro Kirol Kluba
- Astigar Dantza Taldea
- Gaztelekua
- Herri Eskolako Guraso Elkartea
- Gizarte Zerbitzuak
- Kiroldegia

OASekin egin diren saioetan argi ikusi da hezkidetzaren inguruko ezagutza oso desorekatua dela: batzuek kontzeptua presente dute, eta beste batzuek lehen aldiz entzuten dute, eta horrek eragina du nola ulertzen den aukera berdintasuna eta praktikan gertatzen denaren arteko arrakalak. Adibide esanguratsua da kirol elkartean gertatzen dena: printzipioz neska eta mutilek aukera bera dute futbolean edo eskubaloian apuntatzeko, baina gero taldeak ez badira ateratzen (nesken taldeak, talde mistoak...), emakume batek izena emanda ere, praktikan ezin du jokatu; formalki berdintasuna egon arren egiturazko baldintzek aukera hori ukatzen dute.

Kirolaren eta aisialdiaren eremuan datuek eta kontakizunek erakusten dute genero-arrakala handia dagoela: kirol elkartean 700 lagunetatik %23 dira neskak, futbolean gehienak mutilak dira eta eskubaloian, berriz, denak neskak; gimnasia erritmikoan nagusiki neskak daude, eta kiroldegiko ikastaro gidatuetan emakumeak dira gehiengoa, mutilak lehiakortasunarekin eta espazio fisikoaren okupazioarekin lotutako jardueretan ikusgarriago agertzen diren bitartean. Dantza taldearen errealitatean, neska eta mutilek dantza guztiak ikasten dituzte eta irakasleak emakume zein gizonak dira, baina adin batetik gora, mutilak dantza uzten joaten direla komentatu dute eta jarraitzen duten gizon horiek kalean edo inguruan horrelako komentarioak jasotzen dituztela *'mutila zara eta dantza egiten duzu?´* edo *'Oraindik jarraitzen duzu?'*. Horrek argi erakusten du maskulinitate hegemonikoaren presioa.

OASeko kide batzuek ere naturalizatutako ideia batzuk partekatzen dituzte, hala nola *'mutilak berez lehiakorragoak'* direla eta neskek Batxilergora iristean uzten dutela kirola *'lehentasunak beste nonbaiten'* (ikasketak, zaintza...) jarri edo lesioak saihestu nahi dituztelako, eta gerora pilates bezalako jarduera ez-lehiakorragoetara jotzen dutela gehiago. Diskurtso horrek arriskua du genero-rolak berriz ere biologizatzeko eta neskek kirol lehiakorretan jarraitzea zailtzen duten egitura eta presio sozialak

estaltzeko (denbora, zaintza-lanen ardura, ez-babesaren sentsazioa, begiraden pisua...).

Autoritate eta botere harremanak ere modu desberdinean ulertzen dira espazioaren arabera: kirolean entrenatzaileek "zigortzeko boterea" dutela diote (dutxara bidali, partiduan ez jokarazi...), gaztelekuan hezitzaileak "bidelagun" gisa ikusten dira, eta dantzan irakasleek autoritatea izatea "asko kostatzen" dela esaten dute, ondorio formal gutxiago daudelako. OASeko kideek onartzen dute nerabeek argi irakurtzen dutela zein espaziotan dauden eragiten dieten ondorioak eta zeinetan ez, eta horren arabera egiten dietela kasu edo ez entrenatzaile, irakasle edo hezitzaileei.

Azkenik, Mundarro Klubeko haur transen egoerak agerian uzten du nola gurutzatzen diren genero eta arau egiturak. Klubean entrenatu dezakete haiek erabakitako taldearekin, baina lehiatu ez, bakarrik haurren NAN-an azaltzen den sexu kategoriako taldeekin lehiatu daitezke; hau da, mutil trans batek mutil taldearekin entrenatu dezake, baina lehiatu nesken taldearekin egin dezake soilik, Diputazioko sistemak horrela jasotzen du eta. OASeko kideek beraiek esaten dute *'haurra mugatzea klub moduan tristea'* dela baina aldi berean *'legea kontuan hartu behar da'* diskurtsoak mugak eragiten dizkie egoera horren aurrean ezer egin ezin daitekeela sinistuz. Horrek erakusten du egitura instituzionalek (aplikazioak, araudiak) nola baldintzatzen duten praktikan haur trans eta genero-anitzen eskubideen eta parte-hartzearen eremua.

### B) Gazteleku

Gaztelekura joaten den nerabe perfila genero begiradatik begiratuta, hau ikusten da: aste barruan mutilak maizago doaz, neskak eskolaz kanpoko ekintzak edo zaintza lanak dituztelako. Aste barruan ia ez da neskarik joaten. Bestetik, mutilak gaztelekura bakarrik errazago joaten dira eta neskak ez dira bakarrik joaten.

Feminismoarekiko nerabe eta gazteen jarreran azken urteetan atzera pausoa ematen ari denaren sentsazioa dute hezitzaileek. Diskurtsoa eta teoria badakitela diote, baina nekatuta daudela.

Mutilek feminismoa beraien kontra doan zerbait bezala ikusten dute eta beraiek *gaiztoak* izatea eragiten duena; horregatik, feminismoaren kontrako jarrera hartzen dute. Hezitzaileek egiten duten irakurketa da *`mutilak nekatuta daudela eta batzutan feminismoa landu nahiean, gutxietsiak izan direla eta ez dira ondo sentitu. Honetan ez dugu asmatu, defentsibara jartzen dira gaia ateratzen dugunean eta orduan ez dute hitz egiten, ez dute hausnartzen´*.

Nesken kasuan ere nabari da ezberdintasuna, *`lehenago autodefentsa tailer bat antolatzen genuen eta ateratzen zen taldea eta jendea gogoz zetorren. Gaur egun autodefentsa tailer bat jartzen dugu ez esaten dute "pufff, feminismo!" eta lotzen dute horrekin eta ez dute nahi´*.

Lehen, feminismoaren inguruan biltzen ziren neska kuadrillak egoten ziren baina, gaur egun, ez dago. Honekin ikusi dute feminismoa edo parekidetasuna lantzeko moduak berrikusi eta aldatu behar direla eta horretan dihardute Gaztelekuko hezitzaileek. Hau nola egiten duten galdetuta adibide hau kontatu dute *'galdetu genien ea beraiei zer sentiarazten dien feminismo hitzak edo nola sentitzen diren horren aurrean eta orduan atera ziren gauzak'.* Nerabeen bizipen eta emozioekin konektatzean iritsi gaitezkeela beraiengana azpimarratu dute, diskurtsotik beharrean.

Aipatzen dute feminismoa landu ahal izateko, oinarrizkoak diren balore batzuk landu behar direla lehenik eta hori hezkuntza komunitate guztiari dagokiola: nerabeekin esertzea, errespetuz hitz egitea, ondokoa zer moduz dagoen partekatzeko espazioak sortzea... eta horretan ari dira: *'nerabeei ez zaie galdetzen zer moduz dauden, eta norbaitengana baldin bazoaz galdetzera nola dagoen flipatu egiten dute'.*

Beste gakoetako bat, hanka sartzeko aukera eman eta uztea dela azpimarratu dute, feminismoarekin hanka sartu ezin denaren presioa dagoelako bai nerabe eta gazteengan eta baita hezitzaileengan ere.

Nerabeek taldean dituzten jarreren inguruan elkarbanatu dute mutilek errazago hitz egiten dutela ikusten dutela, solteago, permitituago dutelako edozer esan ahal izatea. Neskak isilik geratzen dira sarritan.

Nerabeekin sexualitatearen inguruan serio edo arduratik hitz egiterako orduan ohikoa da beraiek esatea *'nik ez dut hau entzun behar', 'traumatizatuko naiz horrelakoak entzuten baditut'*, edo sexu hitza ez esatea eta letraka esatea s-e-x-u. Baina gero beraien artean lagunartean hizketan ari direnean sexualitatearekin lotutako hiztegia oso presente dago: '*follar para arriba, follar para abajo, huevos...'.*

Gaztelekuan hezkidetza zeharlerro moduan lantzen duten zerbait izanda ere, nerabeek beraien etxeetan bizitzen dutenarekin talka egiten du batzuetan. Adibidez: *'pasatu zaigu azazkalak margotzea mutilei eta hurrengo egunean etortzea margoa kenduta esanez "eske etxean nire aitak ez dit uzten, esan dit kentzeko..."'*. Hemen nabaritzen da nahiz eta gaztelekuan lanketa batzuk egin, etxearekin eta gainontzeko hezkuntza-komunitatearekin ildo berean ez baldin badoaz lanketak pisua edo zilegitasuna galtzeko arriskua dagoela.

Nerabeentzat beraien gauzak kontatzeko konfiantzazko espazio bat da Gaztelekua, institutuan bizitzen dituztenak partekatzen dituzte, izaten dituzten liskarrei buruz hitz egin, institutuan, kalean zein gatazka pertsonalak ere partekatzen dituzte, eta hori potentzial handiko zerbait da.

Testuinguru honetan partekatzen dituzte beraien bikote edo *ligeekin* dituzten bizipenak. Norbaitekin *liatzearen* kontzeptuarekin zer ulertzen dutenaren inguruko kezkak agertu dituzte hezitzaileek. Neskek partekatu izan dituzte hezitzaileekin

beraien bizipenak eta ikusten dute neskek datorkiena onartzeko joera dutela, eta gertatutakoa konsentituta izan denaren inguruko zalantzak sortzen zaizkie hezitzaileei, azken batean, neskek lasai kontatzen dutelako eta normaltzat hartzen dituztelako egoera batzuk non datorrena onartu duten eta listo.

Bikote harremanetan bizitzen dituztenak partekatzerakoan hau kontatu digute: *'Bikote harremanetan plazerera bidean neskek plazera ematea mutilari eta mutilak ez egitea ezer neskaren plazera bilatzeko. Eta hori beraientzat normala da, eta normal bezala kontatzen dute. Hau izan daiteke "normala" bien artean ez badago botere harremanik, baina hori ez dakigu'.* Honekin ikusten da emakumeen plazera ez dela lantzen.

Indarkeria matxista eguneroko dinamika gisa izendatzeko zailtasunak daudela ikusi da, indarkeria bera eta jarrera matxistak normalizatuta daudelako. Indarkeria batez ere irainetan, generoari eta orientazio sexualari lotutako irainetan, neskek mutilari nahi duena egin dezan onartzen dioten harremanetan eta kontrol jarreretan agertzen da besteak beste.

Orientazio sexualaz hitz egiteko askatasun gutxi dago eta LGTBIQ+ gazteek ikusgarritasun falta dute. Nesken artean apur bat gehiago hitz egiten dute eta batzuk esaten dute beraiek oraindik ez dakitela neskak edo mutilak gustatzen zaizkien, baina mutilen artean ez dago askatasunik orientazio sexualaz hitz egiteko eta ez dago askatasunik mutilak gustatzen zaizkiela esateko. Hezitzaileei galdetzerako orduan ere aldaketa bat egon dela sumatu dute, lehen ea bikoterik zuten galdetzen zieten, eta orain hezitzaile emakumeei zuzenean ea mutila duten galdetzen diete.

Gaztelekuko egunerokotan entzutea ohikoak diren esaldiak edo hitzak ekarri ditugu, txorakeriak balira bezala erabiltzen dituztenak: *'Puto marikon'* asko esaten da, *'ez ukitu que tiene SIDA'* gero eta gehiago erabiltzen da, '*es autista*' ere, eta *'esta haciendo bulling'* elkarri molestatzen ari direnean.

Gaztelekuan prebentziorako potentzial handia dago, zuzeneko eta konfiantzazko harremanak sortzen direlako bertan; hala ere, ez dago estrategia egituraturik indarkeria matxistaren prebentziorako eta esku hartzeak egoeraren eta momentuaren arabera egiten dira.

# 6.

# ERRONKAK ETA AURRERA BEGIRAKO PROPOSAMENAK ETA ESTRATEGIAK

Hezkidetzak egiturazko desberdintasunak zalantzan jartzen dituen eta harreman ekitatiboak sustatzen dituen espazio bihurtu nahi dute Astigarraga. Hala ere, hainbat oztopori egin behar diete aurre: ikasle, irakasle, hezitzaile zein familien erresistentzia, diskurtso erreakzionarioen presentzia, instituzio egituren zurruntasuna edota esku-hartze eraginkorrerako metodologia egokirik eza, besteak beste. Atal honetan, hezkidetza oinarrien artean izan nahi duen Astigarragak dituen erronkak, eta aurrera begirako proposamen eta estrategia batzuk aurkeztuko dira. Hauek bi mailan daude bereizita; alde batetik, espazio/eragile bakoitzerako proposamen zehatzak (egindako saio eta elkarrizketetan ateratako behar eta eskaeretatik abiatuta) eta, bestetik, maila orokorrago batean baliagarriak diren egiturazko neurriak.

## 6.1 Espazio eta eragile bakoitzerako proposamenak

- **Gaztelekua**

1) Aholkularitza feminista eta psikopedagogikoa izatea: zalantzak, kasu zailak eta egoera konplexuak lantzeko espazio konfidentzial eta jarraitua. Hilabetean behinekoa izan daitekeena.

2) Gaztelekuko errealitatera nola ekarri diseinatutako formakuntza espezifikoak (saio bakoitzean aplikazio praktikorako tarte eta adibideekin).

3) Hezitzaileek euren artean hausnartu, materialak edo dinamikak sortu eta kasuak partekatzeko ordu propioak, lan-ordutegian txertatuta.

- **Ongizate Arduradunen Sarea (OAS)**

1) Kontzientziazio eta sentsibilizazio lana formatu berrien bidez (ez soilik hitzaldi klasikoak), jendeak benetan parte har dezan: antzerki foroak, dinamika irekiak, jaietan edo kirol ekintzetan txertatutako jarduerak...

2) Herri identitatea eta autoantolaketa herritarra sendotzea: auzo eta herri mailako dinamika komunitarioak bultzatuz (topaketak, auzolan hezitzaileak, herri-ekimenak), eta udalak horiek errazteko papera hartuz.

3) Herriko zerbitzu eta eskaintza guztiak (Gaztelekua, Emakumeon Etxea, jantokiak, kirol eskaintza, laguntza zerbitzuak...) ekonomikoki eta informazioaren eta ezagutzaren ikuspegitik eskuragarri egotea; informazio-kanal argiak eta irisgarriak sortzea herritar orori.

- **Ikastetxeak**

1) Hezkidetza-plan propioa izatea: helburuak, arduradunak, urteko jarduerak, ebaluazioa eta jarraipena jasotzen dituen dokumentu txiki eta operatiboa.

2) Tutoretza egituratzea saioetan genero, harreman, emozioen kudeaketa eta sare sozialen inguruko edukia sistematikoki txertatuz.

3) Irakasleentzako hezkidetzaren inguruko mintegi txiki eta jarraituak antolatzea formazio luze puntualen ordez; hilean behin, 1.5 orduko mintegiak: kasu errealak partekatu, zalantzak landu, materialak trukatu eta esku hartzeak elkarrekin pentsatzeko.

4) Aholkularitza profesionala. Harremanak elkartearekin izan zuten hilabeteroko aholkularitza modukoa edo ordu batzuz arituko den psikologo bat zentroan.

5) Gurasoei zuzendutako hezkidetzaren inguruko foroak antolatzea.

- **Jangelak**

1) Behar handiena baliabide materialetan dute, jangelaren eta patioko espazioaren tamaina haur eta nerabe kopurura egokitzeko beharra dago.

2) Heldu gehiago jartzea jangelan, ratioak egokituz.

3) Begiraleentzako formakuntza egituratua:

- Indarkeria sotila eta hizkera matxista identifikatzeko tresnak eta gatazkak kudeatzeko estrategien ingurukoa.
- Haurren ezaugarrien informazioa erraztea begiraleei (egun datuen babesa dela eta koordinatzaileek ezin diete haur eta nerabeen informazioa eman begiraleei eta honek eguneroko jarduna zailtzen duela diote koordinatzaileek).

- **Udala**

1) Hezkidetza udaleko sail guztietan eta herriari begira egiten denean zeharlerroa izatea. Adibidez:

- Hirigintza/obrak: espazio publikoen diseinuan genero-ikuspegia txertatzea (argiak, ikusezinak diren guneak, eserlekuak, pistak...).

2) Antolakuntza herri-taldeak sustatzea (edo gutxienez baliabideak ematea)

3) Astigarragako Gazte Asanbladari espazio eta burokrazia-arintzea eskainiko dio

## 6.2 Egiturazko neurriak

### 1) Diskurtso antifeministei erantzuteko estrategiak garatzea

Belaunaldi berriak, diskurtso antifeministak eta erreakzionarioak erraz zabaltzen diren ingurune digital batean hazten ari dira. Zenbait figura mediatikoren eraginak eta borroka feminista desitxuratzen duten mezuen biralizazioak gero eta erresistentzia handiagoa sortu dute nerabeengan, genero-berdintasunaren inguruko ekimenak inposizio gisa edo, are, baztertzaile moduan bizitzera arte.

Horren aurrean, nerabeei pentsamendu kritikorako tresnak ematea beharrezkoa da, manipulazio informatiboa beren kabuz aztertu eta desmuntatu dezaten. Horretarako, irakasle zein hezitzaileek nerabeekin batera pentsamendu kritikoa sustatzeko programa bat sortuko da.

Beste estrategia bat da Astigarragako edo inguruko erreferenteekin batera elkarrizketa espazioak sortzea honen inguruan hitz egiteko, feminismoari buruz jasotzen duten informazio bakarra sare sozialetatik edo baliabide erreakzionarioetatik datozen erreferenteetatik bakarrik etor ez dadin.

### 2) Gatazken aurrean jarduteko moduen inguruko prestakuntza

Egun, gatazka azkar ebatzi beharreko edo, zuzenean, saihestu beharreko arazo gisa ikusten da, hausnarketarako eta aldaketarako aukera izan beharrean. Harremanetan harmonia bilatzen da, desberdintasuna sortzen duten botere-dinamikei heldu gabe, eta horrek, zalantzarik gabe, haur eta nerabeei eragotzi egiten die egiturazko indarkerien ulermen kritikoa garatzea. Gatazka kosta ahala kosta saihestu beharrean, baliagarriagoa litzateke hauek modu eraikitzailean kudeatzeko tresnak garatzea, hezkuntza emozionaleko, fazilitazioko, talde prozesuen bidelaguntzako eta justizia errestauratiboaren metodologiak integratuz, desberdinkeriei aurre egin ahal izateko, ukatu edo minimizatu gabe.
Horretarako, gatazkak modu horretan kudeatzeko prestakuntza behar da.

### 3) Teoria eta haur eta nerabeen errealitatea gerturatzea

Diagnostiko honetan atera den zerbait, diskurtso teoriko feministen eta nerabeen eguneroko errealitatearen arteko aldea izan da. Askotan, hezkuntza-ekimenak edo esku-hartzeak teoria akademikoetan edo ikuspegi aktibistetan oinarritutako kontzeptu-esparrutik abiatzen dira eta, genero-desberdintasuna ulertzeko funtsezkoak diren arren, ez da beti lortzen nerabeen esperientzia zehatzekin konektatzea. Horrek edukiak onartu eta bereganatzeko oztopoa sortzen du, nerabeak berdintasunean oinarritutako hezkuntza ‘kanpotik inposatutako’ edo ‘kanpoko’ zerbait bezala hautematera eramanez, beren errealitatearen parte den zerbaiten moduan bizi ordez.

Deskonexio hori gainditzeko, beharrezkoa da hezkuntza-eremuetako esku-hartze feministetan erabilitako metodologiak birplanteatzea. Genero-berdintasuna eduki teoriko gisa aurkeztu beharrean, esperientziaren ikuspegitik landuko da, haur eta nerabeen bizipen, kezka eta gatazketatik abiatuta. Horrez gain, dakitenengandik ez dakitenengana baieztapenak edo informazioa eman beharrean ezagutza modu kolektiboan eztabaidatu, zalantzan jarri eta eraikitzeko espazioak sortzea garrantzitsua da, hanka sartzeari lekua emanez.

### 4) Elkarlana sustatzea

Eskoletan egiten diren esku-hartze asko, dinamikoagoak izan ala ez, irakaskuntzako metodologia tradizionaletan oinarritzen dira oraindik ere. Metodologia horietan, irakasleek edo hezitzaileak ezagutzak transmititzeko figura gisa jarduten dute eta ikasleak hartzaile indibidual eta pasibo gisa. Eredu horrek eragin mugatua du sakon errotutako jarrerak eta sinesmenak eraldatu nahi direnean.

Diagnostiko honetan ikusi da eskolan egindako saioetan ikasleek ez dakitela elkarrekin lan egiten, talde adostasuna bilatzen saiatzean esan dute ez dutela horrelakorik ordura arte egin. Horrek indibidualtasuna indartzera eramaten du, eta indibidualtasuna balio patriarkal bat da, lehiakortasuna, arrazionaltasuna eta autosufizientzia indartzen dituenak besteak beste, harreman sarea gutxietsiz.

Metodologia parte hartzaileekin (ikaskuntza kooperatiboa, talde-hausnarketa, komunitate-proiektuak, talde adostasunak sortzea) hezkidetzarekin bat datozen balioak lantzen dira (entzute aktiboa, ardura partekatua, boterearen birbanaketa, elkarzaintza...), hau da, harreman parekideak bizitze bidean oinarrizkoak diren balioak.

Hau praktikara eramateko, haur eta nerabeak elkarrekin kolektiboki sorkuntzan arituko diren dinamikak egingo dira.

### 5) Irakasle eta hezitzaileen curriculum ezkutua aztertzea

Hezkuntza arloan aritzean, momentu bakoitzean egiten denaren eta kontzienteki transmititzen denaren hortik haratago, ezkutuko curriculum bat dago, genero-rolen eraikuntzan eta balioen transmisioan eragin nabarmena duena. Hezkuntza erreferenteak haur edo nerabearengana jotzeko moduak, azalpenetan erabiltzen diren adibideek, hitz-denboren banaketak edo ikasgelako zein taldeko gatazken kudeaketak, inplizituki, maskulinitate eta feminitate eredu jakin batzuk indartzen dituzte.

Dinamika horien azterketa sakonik gabe, ezinezkoa da benetan berdintasunezkoa den hezkuntzaz hitz egitea. Gai horri heltzeko, funtsezkoa da hekuntza erakunde edo eragileetan formakuntza saioak egitea honako alderdi hauek lantzeko eta aztertzeko: erabiltzen den hizkuntza, hezitzaile eta haur/nerabeen arteko elkarreraginak, eta transmititzen diren arauen eta espektatiben eragin sinbolikoa. Interesgarria da irakasle eta hezitzaileen artean behaketa eta feedback-aren kultura sustatzea ere, profesional bakoitza bere joerez jabetu dadin eta bere praktika pedagogikoak aldatzeko aukera eduki dezan.

### 6) Hezkuntza komunitate osoa elkarrekin norabide berean aritzea

Eskolan egiten dena, etxeetan zein hezkuntza ez-formalean elkarren eskutik joatea garrantzitsua da esku-hartzeak eragina izan dezan. Horretarako, hezkuntza komunitatearen parte diren eragileak elkarrekin lankidetzan aritzeko, bizi dutena partekatzeko, eta estrategia komunak sortu, adostu eta aurrera eramateko espazioak behar dira. Kasu honetan Astigarragan OAS izan daiteke horretarako espazioa.

Hezkidetzaren Herri Plana sortzea izan daiteke aukera bat, hezkidetzaren marko teoriko eta jarduera irizpide bateratuak izango dituena.

Hezkidetza herri kulturan txertatzeko, irakasle, hezitzaile, begirale, eragileetako kide, udaleko langile zein hautetsi hezkidetzaren inguruko formakuntza saioak antolatu daitezke, hezkidetzaren baitako edukiak, begirada eta metodologia eskuratu ahal izateko. Herri plan horretarako saioetan atera da, guraso eta aitona-amonekin lantzeko modua ere sortzea: formakuntza, edo foroak, elkarrizketa espazioak...

# 7.

# BIBLIOGRAFIA

**Adichie, C. N.** (2017). *Querida Ijeawele, o cómo educar en el feminismo*. Random House.

**Arango Rodríguez, S. C.** (2012). Pedagogía feminista: una lectura desde la crítica cultural feminista. En **M. León** (Coord.), *IX Simposio Internacional Educación y Cultura en Iberoamérica* (pp. xx-xx). Universidad de Ciencias Pedagógicas "Juan Marinello Vidaurreta".

**Blanco, N.** (2010). La investigación en el ámbito del currículum y como método para su desarrollo. En **J. Gimeno** (Ed.), *Saberes e incertidumbres sobre el currículum* (568-585. orr). Morata.

**Bourdieu, P.** (1977). *Outline of a Theory of Practice*. Cambridge University Press.

**Connell, R. W.** (2002). Gender and schooling. En **W. K. Cummings, G. E. McLean & J. C. Richardson** (Ed.), *International Handbook of Educational Policy* (387-399. orr). Springer.

**Davis, A.** (2018). *El feminismo será antirracista o no será*. *Ciclo conferencias Mujeres contra la impunidad 2018, Madrid*. Hemen ikusgarri: https://www.lacasaencendida.es/encuentros/feminismo-sera-antirracista-o-no-sera-angela-davis-9261.

**Eustat: Euskal Estatistika Erakundea.** *Euskal AEko biztanleria per lurralde eremua, adin beteko talde handiak, sexua eta aldia* https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010152_cepv1_ep06.px/table/tableViewLayout2/

**Freire, P.** (2005). *Pedagogía del oprimido*. Siglo XXI.

**Galtung, J.** (1998). *Tras la violencia, 3R: reconstrucción, reconciliación, resolución*. Gernika Gogoratuz.

**Galtung, J.** (2000). *Transformación de conflictos por medios pacíficos: El Método Transcend*. UNDP - UNDMTP.

**Giroux, H. A.** (1992). *Teoría y resistencia en educación. Una pedagogía para la oposición*. Siglo XXI Editores.

**Giroux, H. A.** (1992). La Pedagogía de Frontera y la Política del Postmodernismo*. Revista Intringulis*, 6 (33-47. orr)

**Giroux, H. A.** (1997). *Pedagogía y política de la esperanza. Teoría, cultura y enseñanza*. Amorrortu Editores.

**Herrero, Y.** (2013). Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible. *Revista de Economía Crítica*, *16*(1), xx-xx. Hemen ikusgarri: https://www.revistaeconomiacritica.org/index.php/rec/article/view/334.

**hooks, b.** (2000). *Feminism is for everybody: Passionate politics*. South End Press.

**Kebir Tio, M.** (2020). El conflicto y su dimensión de poder. El rango, una dinámica en las relaciones de conflicto. *Revista de Mediación*.

**Korol, C.** (2007). La educación como práctica de Libertad *Hacia una pedagogía feminista* (9-22. orr). Pañuelos en Rebeldía.

**Matarranz, M.** (Koordinatzailea). (2024). *Pedagogías feministas: Reflexiones para la igualdad de género **en** la escuela.* Dykinson.

**Martínez, I.** (2016). Construcción de una pedagogía feminista para una ciudadanía transformadora y contra-hegemónica. *Foro de Educación*, 14 (129-151.orr) Hemen ikusgarri: http://www.redalyc.org/articulo.oa?id=447544536008.

**Martínez, I., & Bernardos, A. (**2018). ¿De qué hablamos cuando hablamos de pedagogías feministas? *Feminismos*. Rebelión. Hemen ikusgarri: https://rebelion.org/pedagogias-feministas/

**Mindell, A.** (1995). *Sentados en el fuego. Cómo transformar grandes grupos usando el conflicto y la diversidad*. Lao Tse Press.

**Montoya, M.** (2004). La mediación femenina que da y hace visible el sentido de la educación. En **M. Montoya** (Ed.), *Recetas de relación. Educar teniendo en cuenta a la madre* (35-85. orr). Horas y Horas.

**Vercauteren, D., Crabbé, O. M., & Müller, T.** (2010). *Micropolíticas de los grupos: Para una ecología de las prácticas colectivas.* Traficantes de Sueños.